

2023-2024 neguan Eskoriatzako baliabide urriko norbanakoen eta familien energia gastua finantzatzen laguntzeko dirulaguntzak deitzeko eta arautzeko oinarriak.

1. Artikulua. Helburua.

Deialdi honen helburua da baliabide ekonomiko urriak dituzten norbanakoen eta familien ohiko etxebizitzako energia-gastua (bosgarren oinarrian zehazten diren onuradunek ordaindu behar duten elektrizitatea, gasa edo beste erregai batzuen hornidura) finantzatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzea.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak elektrizitatearen, gasaren eta beste erregai batzuen kontsumoari dagozkionak izango dira, eta baita komunitate-gastuak ere, horiek berokuntza barne hartzen dutenean. Diruz lagunduko diren gastuak 2023ko azaroaren 1etik 2024ko apirilaren 30era bitartekoak izango dira.

Laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen aldirako justifikatutako gastu energetikoaren zenbatekoa izango da.

2. artikulua. Erregimen juridikoa.

Deialdi hau ondorengo arauak arautzen dute:

- Oinarri hauek.
- Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra.
- 30/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (Estatuko Boletín Ofiziala: 2003-11-18) eta lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege deketuz onartutako Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorrak.
- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, eta, zehazki, 17.25 artikulua, honako hau jasotzen duena udalerrien eskumen propiotzat: "Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena eta tokiko enplegu-politikak edo -planak".

Araudi honetan jaso ez diren alderdi guztietan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden gainerako legeak aplikatuko dira.

3. artikulua. Aurrekontu kreditua.

Aurrekontu-esleipena 10.000 eurokoa izango da, eta 2023ko honako aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da: 0300.480.231.31.01.2023

Eman beharreko laguntzen zenbateko osoa ez da adierazitako kontsignazioa baino handiagoa izango.

Aurrekontu zuzkidura ez bada nahikoa dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskaera guztiei aurre egiteko, dagokion diru gehikuntza egin beharko da udal aurrekontua exekutatzeko oinarrietan aurreikusitako kreditu aldaketen bidez.



Aurrekontu-kreditua handitzearen ondorioz laguntzen hasierako zuzkidura handitzeko ez da beharrezkoa izango, eraginkorra izan dadin, deialdia berriro argitaratzea.

4. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedurak.

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak norgehiagoka askean eta deialdi irekian emango dira. Hala, bosgarren oinarrian adierazitako baldintzak betetzen dituzten eta eskabidea epearen barruan aurkezten duten eskatzaileek dirulaguntza jaso ahal izango dute. Deialdi honetan esleitutako kreditua aurrekontu-zuzkidura amaitu arte banatuko da.

5. artikulua. Bete beharreko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute eskaera egiten den egunean ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsonak:

- Eskoriatzan erroldatuta egotea azken 6 hilabeteetan, etenik gabe.
- Elektrizitatearen, gasaren edo ohiko etxebizitzako beste erregai batzuen fakturak zuzenean edo zeharka (bizilagunen komunitatea, errentatzailea...) ordaintzen aritzea. Baldintza hori 12. oinarrian aurreikusitako moduan egiaztatuko da.
- Seigarren oinarrian aurreikusitako gastu espezifikoek aurre egiteko baliabide nahikorik ez izatea. Baliabide nahikorik ez dela joko da honako baldintza hauek betetzen direnean (etxebizitza berean bizi diren pertsona guztien errendimenduak hartuko dira kontuan):

Urteroko diru sarrera muga

Bizitza unitateko kide kopurua	Gehienezko diru-kopurua
1	20.367,36
2	26.153,28
3 edo gehiago	28.930,80

- Gutxienez eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenago sortutako bizikidetza-unitatea izatea. Epe hori bete behar izatea salbuetsita geratuko da honako hauentzat:
 - Adingabeak ekonomikoki beren kargura dituztenentzat.
 - Ezkontza bidez edo horren antzeko harreman iraunkor baten bidez bizikidetza-unitate berri bat osatzen dutenentzat: bereizteagatik, dibortziateagatik edo beste antzeko egoera batengatik.



- Bizikidetza-unitate berri bat osatzen dutenentzat banantze, dibortzio edo ezkontza-deuseztasun bidez, izatezko loturaren desegite bidez edo bikoteko kideetako bat hil delako, betiere unitate berria aurreko bizikidetza-unitateko kideek soilik osatzen badute.
 - Bizikidetza-unitate berri bat osatzen dutenentzat, beren aitaren eta amaren, tutoreen edo legezko ordezkarien heriotzagatik edo behin betiko sartu dituztelako izaera sozial, sanitario edo soziosanitarioko abegi-zerbitzu batean edo espetxe batean.
 - Bizikidetza-unitate berri bat osatzen dutenentzat ohiko etxebizitza utzi egin behar izan dutelako etxeko edo familia barruko indarkeriaren biktimak izan direlako, betiere unitate berria aurreko bizikidetza unitateko kideek soilik osatzen badute.
 - Kotizaziopeko edo kotizaziorik gabeko zahartzaroko, baliaezintasuneko edo alarguntzako pentsioen onuradunek osatutako bizikidetza-unitate berria osatzen dutenek bikotekidearekin edo senar-emazteen pareko harreman jarraitua dutenekin batera, eta ekonomikoki haien mendekoak direnekin batera.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren desgaitasun-egoeretako batean ere ez egotea. Hala ere, dirulaguntzaren izaera dela eta, baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen zuzenduta baitago, eta Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorraren 8.5 artikulua babesean eta 38/2003 Legearen aipatutako 13. artikulua 2. paragrafoaren lehen paragrafoan jasotako aurreikuspenaren babesean, salbuetsita geratzen dira 13. artikulua b) eta e) idatz-zatietan jasotako debekuak.

6. artikulua. Dirulaguntzak jaso ditzaketen gastuak, dirulaguntzen zenbatekoa eta muga.

5.1.- Deialdi honen ondorioetarako honako hauek jotzen dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

Elektrizitatearen, gasaren eta beste erregai batzuen kontsumoari dagozkien energia gastuak, eta baita komunitate-gastuak ere, horiek berokuntza barne hartzen dutenean. Gastuak 2023ko azarotik 2024ko apirilera bitartean egindakoak izan beharko dira.

5.2.- Laguntzaren zenbatekoa 35 € hileko izango da (gehienez, guztira, 210 €), eta ezingo da izan onuradunak benetan ordaindutako dirulaguntzaren xede diren gastuen zenbatekoa baino handiagoa.

Ohiko etxebizitza edo bizitokia mantentzeko gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) jaso dituzten onuradunen kasuan, diruz lagundu daitezkeen gehieneko gastua diruz lagundutako aldian egindakoa izango da, energia-gastua finantzatzeko GLL-tik jasotako zenbatekoa kenduta.

7. artikulua. Eskaerak eta dokumentazioa aurkeztea.

7.1.- Eskaerak modu presentzian edo digitalean aurkeztu beharko dira, sinatuta eta eredu normalizatuaren arabera.



Eskaerak astelehenetik ostiralera, lanegunetan, 8:00etik 14:30etara, aurkeztu ahal izango dira Udal Erregistro Orokorrean edo, eguneko 24 ordutan, asteko 7 egunetan, telematikoki eginez gero HERRITARREN ATARIAN.

Eskaerak aurkezteko epea dirulaguntzetarako deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egun baliodunean hasiko da eta deialdiko urtearen azaroaren 17an amaituko da.

7.2.- Aurkeztu beharreko agiriak:

1. Dirulaguntza eskatzeko orria.
2. Eskaera-orriarekin batera ondorengo dokumentazioa ere aurkeztu beharko da:
 - I.eranskina
 - NANA, etxean bizi diren guztiena.
 - Familia liburua.
 - Kontu korrante guztien ziurtagiria, ondarearen zenbatekoarekin.
 - Kobratzen duenaren agiriak (nominak, langabezia, pentsioak...)
 - Indarrean dituen hornidura-kontratu, eta elektrizitatearen, gasaren eta beste erregai batzuen hornidura-gastuen azken bi fakturak edo ordainagiriak

Eskatutako dokumentazioaren bat dagoeneko Udalean entregatu bada beste eskaera bat tramitatzeko eta Gizarte Zerbitzuetako sailaren esku badago, nahikoa izango da hori alegatzea, eta eskatzaileen espediente pertsonaletan dauden datuen arabera baloratuko dira eskatutako baldintzak.

Eskaerak ez baditu betetzen deialdian jasotako baldintzak, horiek zuzentzeko eskatuko zaio eskatzaileari, eta horretarako, gehienez ere hamar egun balioduneko epe luzaezina izango du. Era berean, ohartaraziko zaio eskatutakoa beteko ez balu eskaerari uko egintzat joko dela Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 71. artikuluan aurreikusitako moduan eman beharko den erabakia hartu ondoren.

Eskatutako dokumentazioaren bat dagoeneko Udalean entregatu bada beste eskaera bat tramitatzeko eta Gizarte Zerbitzuetako sailaren esku badago, nahikoa izango da hori alegatzea, eta eskatzaileen espediente pertsonaletan dauden datuen arabera baloratuko dira eskatutako baldintzak.

Eskaera egiteak Eskoriatzako Udalari egoki izan daitezkeen egiaztapen-jarduerak egiteko baimena ematea dakar. Jarduera horiek honakoak egiaztatzeko egin ahal izango dira: eskatzaileak emandako informazioa, eskatutako baldintzak betetzen diren eta dirulaguntza emanda erakunde onuradunak hartutako betebeharrak betetzen diren.

8. artikulua. Espedientearen instrukzioa.

Herritarrentzako Arreta Zerbitzu Integralean (H@ZI) eskabideak jaso ondoren, Gizarte Zerbitzuen Arloak egiaztatuko du eskabideak behar bezala beteta daudela eta oinarri hauetan adierazitako dokumentazioa erantsita dutela.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskaerak oinarri arautzaile



hauetan eskatutako baldintzaren bat betetzen ez badu, interesdunari, errekerimendu bidez, hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak eranstea. Errekerimendu horretan berariaz adieraziko da, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, dagokion erabakia eman ondoren.

Aurreko paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, prozedura tramitatzeke eta erabakitzeke beharrezkoak diren datu, dokumentu osagarri edo argibide guztiak eransteke eskatu ahal izango zaio eskatzaileari.

Oinarri hauetan edo aplikatzekoa den araudian jasotako eskakizunak betetzen ez dituzten espedienteak, edo beharrezko dokumentazioa jasotzen ez dutenak, instrukzio-organoaren esku geratuko dira ez onartzeko erabaki-proposamena egin dezan, eta proposamen horretan ez onartzeko arrazoiak adieraziko dira.

Gizarte Zerbitzuen Arloak emandako txosten teknikoaren babesean egingo da hasierako balorazioa eta proposamena.

9. artikulua. Erabakia eta jakinarazpena.

Eskabideak Alkate erabaki bidez erabakiko dira, eta erabakia gehienez ere 3 (HIRU) hilabeteko epean jakinaraziko da eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita. Erabakirik ez bada ematen, eskaera ezetsitatzat joko da.

10. artikulua. Onuradunen eskubideak eta betebeharrak.

Dirulaguntza emanez gero, oinarri espezifikotik jasotakoez gain, onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

Udalaren egiaztapen-jarduerei men egitea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera objektiboa zein subjektiboa aldatuz gero, horren berri ematea Eskoriatzako Udalari.

Laguntza eskaera ebaluatzeke beharrezkotzat jotzen den informazio edota dokumentazio osagarri guztia ematea Gizarte Zerbitzuen Arloari.

Diruz lagundu daitekeen aldiko energia-gastua justifikatzea, ordainagiriak eta fakturak aurkeztuta.

11. artikulua. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna eta finantzaketa-mugak.

Programa honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bera duten edota kontzeptu berberak diruz laguntzen dituzten erakunde publiko edo pribatuetatik datozen beste laguntza batzuekin, betiere gain finantzaketarik gertatzen ez bada; gain finantzaketarik balego, programa honen bidez eman beharreko dirulaguntza murriztu egingo da gainditutako zenbatekoan.



12. artikulua. Dirulaguntza ordaintzeko modua eta epea.

Erabakia onartu ondoren, onuradunari emandako laguntza ordainduko da banku-transferentzia bidez, hark eskabidean adierazitako kontura.

Onuradunari 2 zatitan ordainduko zaio, eta metatutako guztiaren % 80a eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo hilabeteen ordainduko zaio, eta gainerako % 20a gastu osoa justifikatutakoan.

Laguntza amaitu eta gehienez ere 3 hilabeteko epean, onuradunak diruz lagundutako gastua egin duela egiaztatu beharko dio Herritarrentzako Arreta Zerbitzu Integralari (H@ZI). Horretarako, fakturak edo ordainagiriak aurkeztu beharko ditu, bai eta ordaindu izanaren justifikanteak ere.

Justifikatutako zenbatekoak emandako laguntzaren zenbatekoaren berdina edo handiagoa izan beharko du, lehenengo klausulan GLLen hartzaileentzat aurreikusitako doikuntzari kalterik egin gabe.

Jasotako laguntza guztia justifikatzerik ez badago, bidegabe jasotako zenbatekoak itzuli egingo dira.

Ez dira baliozkotzat joko aipatutako datuak jasotzen ez dituzten bankuko ordainagiriak edo egiaztagiriak, ezta zuzenketak edo zirriborroak dituztenak ere.

Komunitatearen ordainketa, berokuntza-gastuak barne hartzen dituenean, transferentziaren banku-ziurtagiriaren bidez edota jabeen komunitateak emandako eta zigilatutako ziurtagiriaren edo ordainagiriaren bidez egiaztatuko da. Bi kasuetan, ordainagiriaren titularra, dagokion helbidea, erreferentziako hilabetea eta ordaindutako zenbatekoa jaso beharko dira gutxienez.

Laguntzaren eskatzailea ez badator bat ordainagiriaren edo banku-justifikanteen titularrarekin, agiri bidez egiaztatu beharko da bien arteko harremana eta, banku-transferentziaren justifikantearen bidez, ordainagiriak titularrari ordaindu izana.

Deialdi honetan diruz lagundutako epean ohiko etxebizitza edo bizitokia mantentzeko GLLak jaso dituzten eskatzaileek ez dute adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharrik izango, baldin eta laguntza horiek justifikatzeko aurkeztu badira, Eskoriatzako Udalaren esku baitaude.

Aurrekoa gorabehera, Eskoriatzako Udalak beharrezkotzat jotzen duen edozein dokumentu eskatu ahal izango du eska daitezkeen baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, bai eta kontrol-ahalmena gauzatzeko beharrezkoak direnak ere.

Gizarte Zerbitzuen Arloari zuzendutako justifikazio-dokumentazioa Herritarrentzako Arreta Zerbitzu Integralean (H@ZI) aurkeztu beharko da.

13. artikulua. Dirua itzultzea eta nola itzuli.

Eskumena duen organoak ofizioz eskatuko du jasotako zenbatekoak itzultzeko, izan bere ekimenez edo izan goragoko agindu baten indarrez, beste organo batzuen eskaera arrazoituaren ondorioz edo salaketa baten ondorioz.

Jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, dagokion espedientearen izapidetu ondoren, honako kasu



hauetan:

1. Eman zen helburu eta jardueretarako erabili ez bada dirulaguntza.
2. Eskaeraren edota eskatutako dokumentazioaren datuak faltsutu badira.
3. Laguntza ematea eragin duten inguruabarrak galtzea.
4. Ezarritako betebeharrak ez badira bete.
5. Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantzaren 24. artikuluan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Era berean, onuradunek itzuli egin beharko dute diruz lagundutako gastuen kostuaren gainetik jasotakoa.

Emandako dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozedura Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorraren 25. artikuluan araututakoari lotuko zaio.

14. artikulua. Oinarriak interpretatzea.

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sor daitezkeen zalantzak oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoak erabakiko ditu, Gizarte zerbitzuetako batzorde informatzaileak txostena egin ondoren, hala badagokio.